

...eta

Kitto!

899 zkia.
2014-IX-12

Ikasturte berri baten atarian



**Euskaraz
blai**

Eibar
Udal Euskaltegia

2014-2015 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK

Irailaren 26 ra arte

Titulu ofizialak • Ordutegi eta erritmo mal-
guak Langabetuentzat ere tarifa bereziak

PORTALEA – Bista Eder, 10

943 70 09 12 euskaltegia@eibar.net





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERO ORDUTEGIA



Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza.

New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Temperatura krisia egongo da munduan 2050aren bueltan populazioak horrela jarraitzen badu hazten. Atmosferaren beroketa da egun dugun arazorik larriena. Gaixotasunak ere gero eta azkarrago ari dira mutitzen. Kontrol barik goaz, baina inor ez da errudun, horren ardura mundu guztiak badu ere"

(MARVIN MINSKY, ZIENTZIALARIA)

"Israeldar guztien kontra egin nahi dut. Gobernu eta herritarren artean beti bereizten saiatzen banaiz ere, kasu honetan ez. Israelgo Estatuak, 1948an eratu zenetik, helburu bakarra izan du: palestinar guztiak deuseztatzea. Hau ez da gerra bat: nazioarteko gobernuek baimendutako eta Israelgo herritar gehienek babestutako estatu hiltzaile batek gidatutako masakrea da, gelditu egin behar dena. Premiazkoa da horiekin arrazista izatea"

(IKER BARANDIARAN, KAZETARIA)

"Gutako bakoitza besteek egindako proiektzioen emaitza gara. Ez hori bakarrik: baizik eta euren aurreiritziek sortutako bideak laga dizkien neurrian, gainera. Besteek egiten gaituztenaren emaitza besterik ez gara, eurek beharra dute-eta euren burua gudan islatuta ikusteko"

(JUAN MANUEL DE PRADA, IDAZLEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KARDANTXILLO.- Txori baten izena, gaztelerazko 'jilguero'. "Kaixolan be makiñatxo bat kardantxillo eukittakua nok ni. Likiar harrapau, eta kaixolara". Hitzontzia, berritsua, berba asko egiten duena. "Ondo jarritako izena hiri, kardantxillua".

KARDANTXILLUANAK.- Kardantxiloaren habia. "Txabola onduan, arta baten, kardantxilluanak".

eskutitzak

PARRILADA SOLIDARIO ARRAKASTATSUA

Eibarko EAJ-PNVk ADELA Euskal Herria elkarteari laguntza ekonomikoa emateko helburuz parrilada solidarioa ospatu du gaur Arrateko zelaian. "Eibarko EAJ-PNVtik eskerrak eman nahi dizkiegu alderdikide eta Karlos Ibarrondo parrileroak prestatutako Eusko Labeledun baserriko oilasko izter pintxoek gozatzera gerturatu diren eta ekarpen ekonomikoak egin dituzten eibartar guztiei" adierazi du Eva Juezek.

"Irabazi guztiak ELA gaixotasuna dutenei laguntza

eskaintzeaz arduratzen den ADELA Euskal Herria elkartearentzat izango dira" gogorazi du alkatetzarako hautagai Eva Juezek.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaile jeltzale eta Aldun Nagusi izateko hautagai Markel Olano eta Maria Eugenia Arrizabalaga eta Kerman Orbeago legebiltzarkideak ere gerturatu dira parrilada solidarioa.

EIBARKO EAJ-PNV



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEREA: ...eta kito! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEREA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** S. Hernandez
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kito!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Kontratuak egitteko laguntasunak

Lanbidek guztiz finantzatuta, Udalak enpresari diru-laguntzak emateko deialdixa egin dau, "Eibarren bihar barik daguzenak merkatu arruntian kontratatzeko". Laguntasunak eskatzeko lehentasuna armagintza eta ikerketa eta garapena lantzen daben enpresak eukiko dabe, bestiak beste, "aurreko deialdixan zerbitzu eta ostalaritza arlokuendako laguntasunak emon ziran-eta". Laguntasuna eskatzeko bete biharrekuen artian, bestiak beste, honetxek dagoz: "Eibarren 2012ko urtarrillaren 1a bai-

ño lehenagotik errolatutako pertsonen lan-kontratuak jasoko dabe laguntasuna, kontratuak 2014ko abenduaren 1a baiño lehen egitten badira. Kontratuak gitxienez 3 hilleko iraupena eukiko dabe eta presakuntza eta ikaskuntza kontratuak izan ezik, beste edozein kontratu-modalidadekua izan leikez eta kontratuak alor horretako hitzarmenaren arabera egin biharko dira". Laguntza-zenbatekua kontratuaren iraupenaren araberkua izango da (3.000 euro hiru hillebeteko kontratuetan, 6.000 eurokua sei



Langabezian daguzeneri kontratuak egitteko dirua emongo detse, iraupenaren arabeko proportziñuan. SILBIA HERNANDEZ

hillebete edo gehixagokuen kasuan), gehixen jota salarixokostuaren %75erañokua. Salbuespena RGI dalakua jasotzen dabeneri, luzaruan langabezian daguzeneri eta 35 urtetik beherakueri lehenengoz

egindako kontratuekin egingo dabe: horrendako 9.000 euro-rañokoa laguntasunak emongo dittue. Programiak 83.961 euroko aurrekontua daka eta eskeriak irailaren 30era arte presentau leikez, Pegoran.



Asteburuan errail bakarra autopistan

Asteburuan norantza bakoiterako errail bakarra zabalduko dabe AP-1 autopistan, Bergara ziherkatzen daben tartian, barixaku gabian, 22.00etan hasi eta domeka gaberañño, Diputaziñoko Bide Azpiegituretako saillak Lesarriko tunelian egingo dittuan mantentendu biharrak dirala-eta. Biharrak Eibarrerako norantzan daguzen errailletan egingo dittue eta, aditzera emon dabenez, trafikua Gasteizerako norantzan daguzenetatik "by-pass" baten bittartez desbideratuko dabe. Biharrak eragingo daben errepide zatixa 138'5 eta 140'4 kilometruen bittartekua izango da.

Erromerixia Irukurutzetan

Arribiribilletako zutarrixa tente jartzeko biharrak amaittuta, horren barri emoteko domekan erromerixia egingo da Irukurutzetan, 11.30xetik aurrera. "Udazkena Dolmenen Ibilbidean" izenburupian, iraila eta urri-rako ekimenak preparau dittue Elgoibar, Soraluze eta Bergara lotzen dittuan ibilbidia ezagutzera emoteko asmuarekin. Informaziñño guztia www.debarrenaturismo.com helbidian.

Etxiak Konpontzen ferixako billeria

Datorren astian, martitzenian, billeria egingo dabe azaruan egittekoa dan Etxiak Konpontzen ferixan parte hartu nahi daben enpresekin. Izan be, udalak eta Debegesak azaruaren 27 eta 28xan Untzagan ferixia egitteko asmua dake, "krisixak gogor astindu daben eraikuntzaren sektoreko enpresa txixixak eta er-taiñak babesteko. Asmua enpresa horrerri etxebizitzak konpontzeko, zaharberitzeko edo birgaitzeko aukeria hor daguala adieraztia eta enpresari hazteko aukeria emon ahal detsen lan-ildo hori hor daguela azpimarratzia da". Deialdixa, beraz, eraikuntza eta birgaikuntza enpresari nahiz arkitektura eta diseiñu bulegueri zuzendutakua da, "Eibarren bertan kokatuta dagua-

zeneri (edo biharrian eibartar kopuru nabarmen bat dakeneri), lehendik dauguazeneri eta gaziak bultzatu dittuen bulego sortu barrixerri, hain zuzen be, merkatuan tokixa billatzeko biharrian daguzeneri".

Ekimenaren bultzatzailliak diñuenez, "azokari esker enpresa edo buleguak eskintzen dittuen zerbitzuak, barrittasunak eta bes-telako guztiak bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabia egongo dabe". Bileria hillaren 16xan egingo da, 13.30xetan Portalean. Edozelan be, Debegesara deittuta (943820110 telefonora, enpresa departamentura) enpresak informaziñña eskatzeko eta izena emoteko aukeria eukiko dabe.



Barrenako jaixak egingo dira bixar

Paella eta tortilla lehiaketak eta mus txapelketia izango dira Barrenako jaixetako protagonista nagusiñak. Azittaingo gasolindegixaren aurreko parkian egingo dira lehiaketiak eta han izango dira umiendako jolasak be, arratsaldeko 16.30xetatik aurrera. Paellarako (10 lagunentzako kazuelia) bikote bakoitxak eruan biharko dittu bere tresnak. Parte hartzeko izena parkian emon leike lehiaketia hasi aurretik (12.30xetan). Paellak 14.00xetan aurkeztuko dira epaimahaixaren aurrian eta sarixak handik ordu erdira banatuko dira. Jarraixan, jakiña, herri-bazkarixa egingo da paelliekin: helduak 10 euro ordaindu biharko dabe eta umiak duan izango dabe.

Mus relanpago txapelketia jokatuko da bazkalostian, 17.00etan hasitta, Gure Kaiola eta Bodega Vinagre tabernen artian banatuta. Euretako edonon emon leike izena parte hartzeko, 16 euro ordainduta. Sarixak honakuak izango dira: irabazliak bildutakuaren %40xa, trofeua eta bi lagunentzako afarixa



Barrenako jaixak lehengo Azittainguaren errepikapenaren tartia hartu dabe. LEIRE ITURBE

Azitain jatetxian eruangou dau; 2.ak batutakuaren %20xa eta langostino kaja bi; 3.ak bildutakuaren %15 eta txanpan botilla bi; eta 4.ak batutakuaren %5 eta arda botilla bi.

Barrittasunetako bat patata tortillen lehiaketia da. Hor guraso batek hartuko dau parte, seme edo alaba batekin. Antolatzailliak emongo detse arrautzak eta patatak eta, behin 19.00etan hasitta, 20.00etan epaimahaixaren aurrian aurkeztuko dira, jarraixan herri-afarimeriendia egi-tteko. Hor be umiak duan izango dabe, helduak bi euro ordainduko daben bittartian.



Mus txapelketia Bodega Vinagren eta Gure Kaiolan jokatuko da.

autuan

ERREPIDE MOZKETIA

Bixar arte eziñ izango da automobillarekin Indalezio Ojanguren kaletik pasau, Ipurua haunditzeko biharren eragiñez. Izan be, garabi haundixa ipiñi bihar dabe biharrian segitzeko eta, hori bere tokixan ipintzen daben bittartia, trafikua moztuta egongo dala emon dabe aditzera udaltzaiñak.



PAELLA LEHIAKETIA

Domekan Kofradixa eta Basarritar jubilaueguna ospatuko da Arraten eta, egunerako programau dittuenean artian eguardixan paella lehiaketia egingo dabe. Parte hartu nahi dabenak egunian bertan emon biharko dabe izena, 11.30xetan zelaixan bertan.



BISITA GIDATUAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN

Ezagutu jauregiaren historia eta aretoek gordetzen duten ondare artistikoa

Taldea osatu eta eskaera egin
info.gipuzkoa@gipuzkoa.net helbidean



www.gipuzkoa.eus

asteko
1.295
datua

tona biohondakin bildu
dittu Mankomunidiak
eskualdeko etxietan
6 hillebetian; 2013an urte
osuan 1.242 tona jaso ziran;
aurtengo erritmuan, urtia
amaitzerako 2.500 bat
tona batuko dira.

Ipurua haunditziari alegaziñuak

Eguaztenian egindako agerraldixan azaldu ebenez, Ipurua foball zelaixaren inguruko bizilagunak zazpi alegaziño presentau dittue udaletxian, zelaixak jende gehixago hartzeko tokixa izan deixan egitten hasi diran biharak dirala-eta. Denboraldi honetan Eibar foball taldiak lehen maillan jokatuko dabela-eta, dorrien parian daguan iparraldeko harmaillak zabaltziari ekin detse eta bizilagunak "Ipurua haunditziaren kontra ez duguazela" argi laga daben arren, ez detse ondo erizten "obria eurekin ezer konsultau barik" hastiari. "Proiektu honi ez, bada aukerarik" goiburuari jarraitua osatu daben plataformakuak 300 siñadura batu dittue eta, azaldu dabenez, "Ipuruan jendiarendako toki gehixago lortzeko beste bide batzuk egon badagoz, adibidez etxien parian barik, hegoaldeko tribunia haundittuta". Horrekin batera, biharak horren azkar hastia ez dabe oso argi ikusten, "biharrak



Inguruko bizilagunak eurekin konsultatzia eskatzen dabe. SILBIA

amaittu orduko martxo edo apirilla izango da eta, beraz, denboraldixa ixa amaittuta egongo da. Bestalde, klubeko zuzendaritzak harmaillak haundittuta 6.700 toki lortu nahi dittu (5.250 toki eguazen aurreko kanpaiñan), baiña iazko denboraldixa historikua izanda be, Ipuruan jokatutako partiduetara juandakuen bataz-bestekua 3.200 lagun ingurukua izan zan". Gauzak hola, zalantzan ipintzen dabe horrelako biharak egittiaren premiña eta edozelan be, bizilagunekin berba egiñ eta euren eritzixa kontuan hartzia eskatzen detse arduraduneri.

amaittu orduko martxo edo apirilla izango da eta, beraz, denboraldixa ixa amaittuta egongo da. Bestalde, klubeko zuzendaritzak harmaillak haundittuta 6.700 toki lortu nahi dittu (5.250 toki eguazen aurreko kanpaiñan), baiña iazko denboraldixa historikua izanda be, Ipuruan jokatutako partiduetara juandakuen bataz-bestekua 3.200 lagun ingurukua izan zan". Gauzak hola, zalantzan ipintzen dabe horrelako biharak egittiaren premiña eta edozelan be, bizilagunekin berba egiñ eta euren eritzixa kontuan hartzia eskatzen detse arduraduneri.



Eskoziarekin alkartasuna

Hillaren 18xan Eskozian egingo daben independentziaren aldeko erreferenduma dela-eta, baiezkuaren alde duguazeneri alkartasuna eta babesa adierazteko alkarretaratzia deittu dabe Eibarko EH Bildukuak, 18.30xetan Untzagan.

8.050 ALE, 829 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu 11, solairuartea. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxeandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**

Izen-abizenak: _____ Herria: _____
Helbidea: _____ e-maila: _____
Telefona: _____ Jaiotze data: _____
Lanbidea: _____
Kontu zenbakia (20 digito): _____



Lorea Arakistain kazetariak ...eta kitto!n eman zituen lehengo pausoak. Ondoren irati-munduan jardun zuen (Herri Irratian eta Euskadi Irratian). Elhuyar-en ia 7 urte eman ditu lanean komunikazio proiektuak kudeatzen.

Zazpi urte pasa dira **PuntuEus** proiektua jaio zela eta 2014ko ekainetik ikusgarria da .EUS domeinua Interneten. Bere helburua euskara eta euskal kultura sustatu eta Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatea kohesionatzea da.

Ekainaren 28an 92 puntuEUS Aintzindariak aktibatu zituen **PuntuEus** Fundazioak, eta irailaren 16tik aurrera badator .EUS domeinuaren faserik indartsuena: erakunde, enpresa, elkarte eta partikularrek domeinu-eskaria egiteko aukera izango dute.

Lorea Arakistain eibartarra **PuntuEus** egitasmoko lantaldeko kide berria da. Fase berri honetarako sortu den lantaldeak .EUS domeinuak eskatu, kudeatu eta erregistratu egingo ditu.

LOREA ARAKISTAIN (PuntuEus-eko komunikazio arduraduna):

“Lehentasuna dagoeneko existitzen diren elkarte, enpresa eta erakundeek izango dute”

- Zein izango da irailaren 16tik aurrera zure taldearen lana?

Orain dela urte batzuk helburua .EUS domeinua lortzea zen eta orain, helburua lortu denean, gure eginbeharra .EUS zabaldu, mantendu eta gestionatzea izango da.

- Irailaren 16an fase berri eta garrantzitsu batean sartzen gara, abiarazte aldian, hain zuzen.

Irailaren 16an domeinuak eskatzeko epea zabalduko da. Hasieran abiarazte aldi bat zabalduko da: interneten erregistroak lortzeko orduan, heltzen den lehenak erregistratzen du dominioa. Baina guzti hau modu ordenatuan egin behar da; guk dagoeneko existitzen diren enpresa, elkar-

te eta erakundeak babesteko asmoz, abiarazte aldian eskaerak jaso egingo ditugu. Epea azaroaren 18an amaituko da, eta erregistroak abenduaren 3an aktibatuko dira. Beraz, hasierako asteetan elkarte, erakunde eta enpresek izango dute lehentasuna euren izena erregistratzeko edo gordetzeko orduan, ICANNekin hitzartutako irizpideak oinarritzat hartuta. Hortik aurrera fase irekia edo librea zabalduko da.

Gure webgunean (www.domeinuak.eus) erregistradore zerrenda bat agertuko da; beraiek dira zuzenean domeinuak salduko dituztenak. Prezioak erregistradorek jarriko dituzte, eskaintzen dituzten zerbitzuen arabera.

- Orain arte 92 aintzindariak egon dira ikusgarri interneten. Abenduaren 3tik aurrera (Euskararen Eguna), edozeinek izango du aukera bere webgunea .EUS bezala argitaratzeko.

Helburua .EUS denontzako dominio bat izatea da. Jende guztiarengana iritsi nahi dugu: ez bakarrik erakunde handiengana, baizik eta enpresa txiki bat daukanarengana, etxe azpiko ileapaintzailearengana...

Oso inportantea izan da .EUS lortzea, lan itzela egin da guzti hau lortzeko euskal komunitatean eta eskaera handia dago. Ni oso ilusionatuta nago proiektua ezagutzera eman eta zabaltzeko aukera izango dudalako.

.eus domeinuari buruz

- Nork erregistra dezake .eus domeinu bat?

Edonork eska dezake .eus domeinu bat, .com edo .org bezala. Izan partikularra edo erakunde/enpresa/elkartea, izan hemengoa edo hangoa. .eus domeinu bat erregistratzeko ez da eskatzailea nor den begiratu, webgunea baizik

- Zeintzuk dira .eus domeinu bat erabiltzeko baldintzak?

Batetik, webgunearen edukien zati bat euskaraz egotea. Bestetik, euskarazko edukirik ez dagoen kasuetan, euskal kulturarekin loturiko edukiak izan beharko dute.

- Nola ziurtatuko da baldintzak betetzen direla?

Aldizka, baldintzak betetzen direla ziurtatzeko azterketak egingo dira. Baldintzak betetzen ez direnean, domeinuaren titularrari posta elektronikoz jakinaraziko zaio. Epe jakin batean baitan erantzunik jasotzen ez badugu eta baldintzak betetzen ez badira, domeinuaren erabilera etenda geratuko da.

- .eus domeinu bat eskatzen badut, aurretik dudan .com edo bestelako domeinua galdu egiten dut?

Ez, domeinuak euren artean bateragarriak dira eta nahi adina egon daitezke indarrean domeinu-izen berdinerako. DNSa konfiguratu behar da horretarako.

- Nork kudeatzen du .eus domeinua?

.eus domeinua PuntuEus Fundazioak kudeatzen du, eta irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuei eta irekia dago interesa duten pertsona eta entitateetara.



Aste honetan ekin detse ikasturte barrixari ikasle gehixenak, gurian ez eze beste herrixetan be. Kurtso hasieria beti be barrittasunekin jantzitta etortzen da: "Zeñ izango da aurtengo andereño edo maixua? Betiko lagunekin egongo naiz gelan?", "Nolako gauzak ikasiko dittugu?"... Umien motxiliak holako galderekin beteta juaten dira normalian. Aurten, baiña, galdera zerrendia beste batzuetan baiño luziago izango zan kasu askotan eta, umiak baiño, guraso eta irakasliak kezkatzeko modokua. Izan be, LOMCE edo Wert Lege moduan ezagutzen dogun hori indarrarian sartzeko ikasturtia da hasi barri dogun hau eta oindiok be jendiak beldurrez eta zalantzaz beteta begirutzen detsa hezkuntza erreforma barrixari.



Hasi da LOMCEren ikasturtia

Gure herriko ikastetxe gehixenetan martitzenian hasi dan kursuari 3.673 ikaslek ekin detse. Hórretatik 1.049k Haur Hezkuntzako (HH) geletan ikasiko dabe, 1.564k Lehen Hezkuntzaketan (LH) eta 1.060k Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaketan (DBH). LOMCE legiak, baiña, ez detse daneri eragingo, momentuz Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailletako eta oiñarrizko Lanbide Heziketako ikaslieri baiño ez detselako eragingo. Edozelan be, Euskal Autonomia Erkideguan klasiak hasi dittuen 368.000 ikaslietako askok, 68.000 bat millak, Wert minis-

truaren abizena daroian enegarren erreformako ikasturtia hasi dabe, batzuren eritiziz "onerako" eta beste batzuren eritiziz, barriz, "okerrerako".

Aurreko ikasturtia amaittu aurretik, Eibarko Lomceri Ez taldekuak herriko ikastetxietan inkestia egiñ eben, gurasuak erreforma barrixaren inguruan pentsatzen dabenaren inguruko informaziñua eta datuak batzeko asmuarekin eta, gurasuen parte-hartzia ikastetxetik ikastetxera aldatzen bada be, batutako erantzunak nahikua adierazgarriak dirala eritzen detse: "Erantzun dabenen artian argi eta garbi



Zalantza ugari dogo oindiok be.

ikusten da gehixenak, %83 kontra daguzela eta %17k hezkuntza sistemia oiñ arteko moduan lagako leukie, ezer aldatu barrik eta gehixenak euren seme-alaben ikasgeletako atietan 'LOMCE bariko gela' kartela pegatziaren alde dagoz".



Kezka eta beldur ugari

LOMCEekin kezkatuta daguzeneri gehixen ardura detsena be nahiko garbi

Kezkatzekotan, zerk kezkatzen zaitu gehien LOMCEk ukitzen dituen arloei dagokionez?

Behar bereziei emandako atentzioa

Curriculum zentralizatuaren ezarpena




islatzen dabe datuak: euskeriak eta erlijioak eukiko daben tokixarekin batera, metodologixa bera, kurikulum zentralizatuaren ezarpena eta premiña bezelaxeri eskinduko jakuen arretia. Horretxek dira kezka gehixen eragitten daben gaixak.

Datuen inguruko irakorketa sakona egi- tteko aukeria egon badago, baiña aste honetan bertan Eibarko Lomceri Ez taldekuak egindako billerian legiaren kontra edo alde egittetik haratago doian kezkiak topau genduazen: "Ikasturte honetan behintzat ez da holako alde nabarmenik ikusiko. Izan be, administraziñuak erreformiak eskatzen dittuan aldaketa guztiak indarrarian sartzeko astirik ez dau euki. Argitaletxiak be materixal barrixa argittara emoteko asti barik ibilli dira... Horregaittik, praktikan, ez da holako kanbixorik ikusiko, oso modu subliminarrarian ezartzen juango da-eta. Aurtengo inplementaziñua txikixa izango da".

Atzerapausua

Halanda be, argi dago legiaren izena aittatu eta erreakziño generala kontra egittia izaten dala: "Jendiak mamuari moduan, beldurrarekin begirutzen detsa eta automatikoki ez dabela nahi diñue, baiña pentsatzen dogu askotan legiak zer aldaketa ekarriko dittuan-eta zeintzuk diran be ez dakixela, askori gaixa oso ezezaguna egi- tten jakue oindiok be".

Gaur egungo hezkuntza sistematik zerbaiz aldatuko zenuke?



Ekainean jaso zuen 2014ko ikasle ohi aipagarriaren saria Iñaki Sanchez eibartarrak Elgoibarko IMH Sarien 12. edizioan. Gaur egun Dikar (Bergara) enpresako kalitate zuzendaria eta Customer Service Saileko arduraduna da. Elgoibarko Makina Erreminta Institutuan Fabrikazio Mekanikoko Diseinua ikasi zuen 1999-2000 eta 2000-2001 ikasturteetan.

I- Nolatan jaso duzu ikasle ohi aipagarriaren saria?

Badira urte batzuk IMHn ikasketak amaitu nituela eta, urtero ikasle ohi bat saritzen dutela jakin arren, nirekin gogoratu izana ezusteko ederra izan da. Ikasketak amaitu eta gero, etxean zein atzerrian (Txinan lau urte eta erdi egin ditut) izandako garapen profesionalarengatik ikasle berrientzat eredu modukoa izan nitekeela pentsatuko zuten saria emateko.

- Zure inguruan nola hartu zuten berria?

Egia esateko, oso jende gutxirekin komentatu dut sariarena, gehienek prentsaren bidez jakin dute.

- Gaur egun egiten duzun lanak eta IMHn ikasi zenuenak loturirik daukate?

Bergarako Dikar kooperatiban egiten dut lan, kalitate departamentuko arduradun. Dikarren hiru negozio unitate ezberdin garatzen ditugu eta atzerrian filial bi ere baditugu (Portugalen eta AEBn). Hasierako produktuaren kontzeptualizazio eta garapenetik abiatuta, produktuak merkatuan duen harrerara arte, prozesu guztian hartzen dut parte, beti ere bezeroekin harreman zuzenari eutsita. IMHen diseinua ikasi izanak, nere eguneroko lanean, merkatu eta bezeroen beharrak asetzeko prozesuak garatzera narama.

- Krisiarekin sarritan esaten dute lanbide berriak bilatu behar direla, baina gure inguruan oraindik ere pisu handia dauka industriak, ezta? Nolako etorkizuna ikusten diozu?

Bai, zalantza barik, Euskal Herrian ekonomiaren funtsa industria da. Dena dela, beste sektore eta arlo batzuk ere (zerbitzuak, turismoa, nekazaritza...) beharrezkoak direla uste dut. Oro har, makina erremintari etorkizun oparoa ikusten diot, izan ere gurean tradizio luzea izan du eta gure industria Europan ezaguna da. Etorkizunari begira, mundura gehiago zabaldu behar dugula uste dut. Kostu baxuko ekoizpenenak garatzen dituzten herrialdeekin borrokan hasi beharrean, balio gehigarria dituzten produktu eta zerbitzuak atzerrian merkaturatu beharko genituzke.

- Gaur zalantzatan dagoen gazteren bati horrelako ikasketak egitea gomendatuko zenioke?


Duda barik. Ikasketa teknikoek irteera profesional onak dituzte. Ikasketak oinarri ona dira, baina enpresen egunerokotasuna ondo ezagutzeko egiten diren lan-praktikak zein bisita ugariak, ikasketak biribiltzen dituzte. Horrekin batera, guztiz beharrezkoa da atzerriko hizkuntzetan ondo moldatzea eta norberak beti gauza berriak ikasteko interesa izatea.



Iñaki Sanchez
(IMH-KO IKASLE OHI AIPAGARRIA)

"Ikasketa teknikoek lanerako irteera onak dauzkate"

Asier Serranoren 3 diskoak



"Ez Esan Inori"



"Gerrari bai"



"Hoteleko kantuak"

10 eurotan
...eta kitto-ko
bulegoetan

Unibertsitatea: etxean edo pisuan?

Behin Unibertsiterako urratsa emanda, gehienetan zalantzarria izaten da: ikasturtea joan-etorrian egin, hau da, etxera erretiratzeko, edo aukeratutako zentrotik gertu dagoen pisu (edo kolegio) batean bizitzen hasi? Astero zuen etxeetan aldizkari hau jasotzen duzuenontzat barixakuero banaketa lanetan diharduten unibertsitari birekin egon gara euren esperientziaren berri izateko; gainera, bakoitzak bide desberdina hartu du arlo horretan.

Bigarren urtea da unibertsiterako bidea hartzen dutela. Lehenengoan "ez zutela asmatu" sinestuta badaude ere, akaso guztiz kontrakoa lortuko zuten: zer komeni zaien argiagi ikusi eta euren zentzako ez zena lehenbailehen baztertea. Asko dira eta bide berean saiatzeko direnak, gero berandu denean ikasketak bertan behera lagatzeko.

Ekain Lazkanok eta Jone Zabalak izan zioten unibertsitate bideari. Ekainek Ingeniaritza aukeratu zuen eta Jonek Farmazia. Ikasturtea joan-etorrian egin zuten, egunero gurasoen etxera bueltatuta. Aurretik Institutoan ikasitakoak, gogotsu ekin zioten bide berriari. Guztiz berria egin zitzaizkien bideari! "Pertsonalki, jauzi handia nabarmendu dugu Batxilergotik" dioskue, biak ados. "Zure burua beste modu batera antolatu behar duzu. Independentetagoa zara, askeagoa, aldi berean: inor ez da egongo zure gainean eta, azkenean, zenbaki bat besterik ez zara". Euren burua pixka bat galduta ikusita ere, pozik daude institutoan egindako prestakuntzaz. Hori bai, "beharrezkotzat" jotzen dute prestatzen joatea. Gabonetarako larregi ez ziren estutu, baina "gero, martxotik apirilera gogortzen hasi zen asuntua eta ekainean une zailenak izan genituen".



"Gogotik lan egiteko asmoz" eta itxaropentsu ekin diote ikasturte berriari. SILBIA HERNANDEZ

Ikasketa berriek iazko guneetara eramango dituzte aurten ere: Zabalak Gasteizen jarraituko du ikasten, Erizaintza oraingoan, eta Lazkanok Bilbon, Ekonomia hain zuzen. Bien kasuan, lau urtekoak. Ez dituzte guztiz aldatu iaz sasoi honetan emandako lehenengoko urratsak, baina bai joan direla finkatzen, "oraingoa asmatuko" dutelakoan. Hori bai, Jone pisura joango da oraingoan, horrek ematen dituen baliabideez aprobetxatzeko asmoz: "Ez duzu egon behar autobusa egokituko zaizun edo ez begiratzeko. Ez zara hain goiz jaiki behar eta neke gutxiago pilatuko duzu, gainera, joan-etorri bidaiak saihestuz, horrek ikasteko denbora gehiago ematen dizu".

Kuadrilako beste bi lagunekin biziko da Jone Zabala Gasteizen. Eta serio helduko diote gaiari: bazkariak eta afariak eurek prestatzeko asmoa dute, etxetik janari prestatuarekin tupper-ak eta hala-koak eramaten ibili barik. "Esperientzia berria izango da guretzat, ama gainean

izan gabe. Eta orain arte janaria prestatzen ez dugu proba askorik egin".

Ekain Lazkanok, bestalde, iazko moduan jarraitzea erabaki du: "Bilbora joateko, garraio bidea nahiko ondo dago gaur egun... Eta, jakina, merkeagoa da. Horrez gain, etxean gustorago aurkitzen naiz: etxe-giroan eroso sentitu izan naiz beti". Kuadrilla berekoak dira Ekain eta Ane eta gehienek Ekainen bidetik jo dute: "Hiru kenduta, beste guztiak joan-etorrian jarduten dugu".

Batak zein besteak kontuan izan dute aukeratutako karrerak behin amaitutakoan irteerak eskaintzen dituen: "Gure azken helburua gero lanean jardutea da eta hortik bizitzea". Lazkanok txikitari arkitektoa izan nahi zuen, baina aurten hasitako Ekainek enpresa mundura bideratuko du. Zabalari txikitari gustatu zaio "jendearekin tratua izatea" eta Erizaintzak eskainiko dio aukera hori. Bitartean, gaur ere eskuartean duzun ale hau moduko beste asko banatuko zituzten.

JOSE LUIS ITURBE ARRETxea I. URTEURRENA (2013-VIII-21)



"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"
EZ ZAITUGU SEKULA AHAZTUKO

ZURE LAGUNAK





Aspaldiko asmua errealidade bihurtu dabe Sosola basarrikuak eta, Arrajolan garixa ereiñ eta gero, ale gitxi batzuk lortu dittue.. Modu sinbolikuan edo, ogixa egiñ eben astelehenerako eta Arraten saltzen ipiñi. Eibarko garixakin egindako hórrek ogixok izan ziran, gaiñera, "lehelenguak saltzen", Enrike Gisasolak diñoskunez.

Aizpea Izagirre andriarekin eta famelixakuekin egon zan Arraten, aurtengo probiaren azken emaitzarekin. Aspaldiko ohituretara bueltatzeko gogo hori "betidanik" dake eta aurten animatu ziran, "gari pixka bat kanpotik ekarri eta probia egitteko". 2.000 metro inguruko sailtxuan, Arrajolan, ereiñ eben. Azkenian, 120 kilo jasotzeko: "Ez da asko, baiña bastante ona urten desku. Eta baitta ogixa be". Kantitatez urria izan dala onartuta be, kalidadiakin oso pozik dago Enrike.

Prozesuari ekitteko, gaiñera, "lehenago zaharrerri galdetu, lurra analizau, lehenago teknikkak eta barrixak aztertu... har-tu dogu lan pixka bat". Etxeko



gari pixka bat lortziana, dana dala, ez daka bestelako helburu haundirik Sosolakuenendako: "Helburu pedagogikua dago, batez be, jendiari erakusteko". Garixa biltzeko, auzolanian egindako jardunian,

Aza ta Porru alkartekuak izan zittuzen lagun: "Uztaillaren erdi aldixan izan zan, trumoi giro bittarte bat aprobexatuta". Osterako lanak eskuz egin dittue: bai batu, bai jo eta baitta garbittu be. Eta, gaiñera,

Eibarko garixakin egindako ogi ekologikuekin batera, Arraten Nafarruako, Huescako eta Toledokuak saldu zittuen.

lehenago tresnekin: beste basarri batian lortuta, Ezkiotik, haizia emoteko, garixa garbitzeko makiñia... "komunitari-xuak ziran makiña asko".

Datorren urtian barriro

Datorren urtian "sail haundixuago batekin aprobia" egitteko asmua dakela diñosku Gisasolak. Baitta deialdi zabalagua egitteko, "Aza ta Porrutik kanpo be". Hori bai, berak ez de tsa garrantzi berezirik emoten egindakuari: "Ez da beste munduko ezer. Animatzia besterik ez". Arraten, "Eibarko" 50 ogi eruan zittuen, kanpokuak baiño lehenago saldu ziranak. Oin 50 urtetan galdutako ohiturria berreskuratzeke ideiarekin, "asmua Diputaziñuan aurkezteko gogua dogu".

Portatu zarete!

Arrate egun bezperan trumoiak gogor jo zuen eta Arrateko Jai-xetan parte hartzen dugun guztiok eguraldiak jaia hondatuko zigun beldur ginen. Baina iragarpen guztien kontra, Arrate eguna eguzkitsu esnatu zen eta beste urte batzuetan baina beranduago, baino jendea pixkanaka-pixkanaka Arratera igotzen hasi zen. Eguraldia portau zan eta eguerditik aurrera trumoi arriskua bazegoen ere, zorionez ez zen bete. Meza nagusiaren ostean orain dela urte asko bizitzen ez genuena bizi genuen: jendea boletoak erosteko zain, bertan beharrean geunden sei lagunok boletoak saldu eta opariak banatzera heltzen ez ginela... Erlojuak, kirol poltsak, gerrikoak, tabletak, manikurak, kotxe garbiketak,

jamoia, otarrak, erosketa baleak, DVD portatilak, telebista,... milaka opari banatu genituen, arratsaldeko 20:30etan opariak amaitu eta datorren urtera arte tonbolako atea itxi genituenean.

Baina benetan ZUEK, EIBARTARROK portatu zarete. Dakizuenez, kittonbola moduko ekimenek gure ohiko programa aurrera eramateko ezinbestekoak ditugu. Ezinezkoa litzateke ...eta kitto! astekaria atera, Berbetan programa eta bere atal guztiak eutsi, ikerketak egin, hitzaldiak antolatu... eta urtean zehar egiten ditugun guztiak garatu.

Beraz eskerrik asko kittonbolako opari mordo hori osatzen lagundu diguzuen denda, enpresa eta erakunde guztiei, boletoak erosi zenituzten



guztiori eta edozer jaso edo esku hutsik joan eta irrifarrea oparitu zeniguten guztiori. Egunerokotasunari aurre egiteko indarra eta motorea zuek zaretelako.



Kittonbola

KITTO Onbolia



Euskara Elkarte


Arrate egunean, euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera izan zenuten aurten ere. Eskerrik asko parte hartu duten denda eta enpresa guztiekin!!!

- ...eta kitto! Euskara Elkarte
- Aibe
- Amaña Avia gasolindegia
- Ansa bitxitegia
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Astigarraga
- Athletic Club
- Azitain erretegia
- Azitain gasolindegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- BBVA
- Benicoba
- Blanca Ioradenda
- Burbujas y mas
- Capi
- Coca Cola
- Dandara
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- e&m argazkidenda
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Eskubaloia
- Eibar Futbol Taldea
- Eibar Motor
- Eibar Outlet
- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala
- El Cantón de la Avenida
- El Corte Inglés
- Emankor
- Eroski Eibar hipermerkatua
- Errebal Kirolak
- Estación de Servicio Eibar
- Esther Galarza
- Farmalur
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Guillermo arraindegia
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusi-makusi
- Industrias G. Arizaga



Inoiz baino gehiago behar dugu

ESKERRIK ASKO parte hartu duzuen danori!



- Industrias Mail
- Iratxe belardenda
- Iñaki del Rey
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- Jauregi
- Jaz-Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria
jatetxea
- Kanto
gasolindegia
- Kerala
- Ketesa
- Kokein
- Kultu taberna
- Laboral Kutxa
- Lakett
- Leder
- Lide
- Luis del Rey



- Mamacas
- Mara-mara
- Marian-Idoia spa
- Más que wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta
eta txerrikiak
- Muga
- Mujika
harategia
- Natural
- Neure
- Nice Nice
- Oberena harategia
- Orbea



- Oroz Exclusivas S.L.
- Otegi harategia
- Pirritx eta Porrotx
- Pitxiak
- Publi-resa
- Quetzal
- Salaberria
bitxitegia
- San Andres
gozotegia
- Selene
- Solera estankoa
- Su Ta Gar
- Tribeka
- Twins
- Txutxufletas
- Umea
- Urdanibia
- Valenciaga
- Vinos Solera
Eibarresa
- Yraolagoitia
- Zurkulu

Kittonbolan parte hartzea... Zatoz!

ARRATIAK domekan izango



dabe jarraipena

Arratietako jaixak giro edarrin eta eguzkian pasau genduazen. Bezpera arratsaldian bota eban txaparradia sustuan geratu zan eta, bestela, programauta eguazen ekitaldi guztiak aparteko gorabehera barik egin ziran: hillaren zazpitan gaztiak izan ziran protagonista nagusiñak, herri bazkarixa eta gabeko kontzertuak tartian. Eta Arrate egunian, barriz, goizetik animau zan jendia jaixarekin bat egittera. Astelehena izanda, beste batzuetan baiño jende gitxiago batu zan, baiña edozelan be, eliza inguruan zein zelaixan ambiente polita egon zan egun osuan, Eganen erritmorra egunari agur esateko ordua aillegau bittartian. Asteburuan, domekan, Kofradixa eta Basarritar Jubilauen Eguna ospatuko da eta atzera be jaixa jaun eta jabe izango da Arraten. Egunerako prestatu dittuen guztiak agendan, 24. orrialdian dakazuez.

argazkiak: LEIRE ITURBE



Errugbian ahalegin berezia egingo da emakumeen taldearekin

Denboraldi berriari begira, aurreko astean hasi zuten aurrendenboraldia Eibar Rugby Taldeko ekipo guztiek. Senior mailako talde nagusiak entrenatzaile berria izango du: azken bi urtetan Durangon entrenatu duen Pello Urkidi gure herriko taldearekin estrenatuko da, Gorka Nuñez presatzaile fisikoa lagun duela. Emanuel Galvan bueltatzen da taldera eta,

horrez gain, 16 urtetik beherakoen taldea entrenatuko du. Klubean horrela erabakita, bultzada berezia emango diote oraingoan nesken taldeari eta, horrela, orain arte Amaia Telleriak egindako lan handiarekin jarraitzeko, aurten entrenatzaile kualifikatua fitxatzeko asmoa dute. Taldera bueltatzekoa da ere Ainara Letona, ama izan eta gero.



Emakumezkoen taldeak asko egin du aurrera azken denboraldiotan.

Edu Oyarzun beterano V2 mailako Euskadiko txapeldun



Maialen Zamakola eta Esther Pagei, proban parte hartu ez zuen Aitziber Urkiolarekin.

Iraileko lehen asteburuan, triatloiko denboraldiko azken txanpan sartuta, emaitza onak izan dituzte Delteco Eibar Triatloi taldekoak. Zapatuan, Zumaiako triatloi sprint proban, Edu Oyarzun beterano V2. mailako Euskadiko txapelduna geratu zen. Sailkapen orokorrean, Pello Osorok 6. egin zuen (gainera, bigarrena izan zen 23 urtetik azpikoen artean) eta haren atzetik sailkatu ziren Txomin Osoro, Juanjo Romero, Moi-

ses Altuna, Iñaki Serrano eta Santiago Guinea. Emakumezkoetan, Esther Pagei eta Maialen Zamakola Eibarko ordezkariak izan txukuna egin zuten.

Halaber, Logroñoiko triatloian ere partaidetza arrakastatsua izan zuten. Distantzia luzean, Iñigo Unanue 16. sailkatu zen, bere mailan onena izateko, eta Iker Aranzibia 50. sartu zen. Sprint ibilbidean, azkenik, Roberto Gartzia 15. eta bigarrena beterano mailan.

Foball-zaletu liga txapelketa 14 talderekin aurten ere

Foball-zaletuaren KirolJokoa liga txapelketaren lehen jardunaldia jokatu da asteburuan, azken urteotan bezala, zapatuan lau norgehiagokekin eta domekan beste hirukin. 14 taldek hartuko dute parte ligan, denek denen aurka, bi itzulira, 26 asteburutan. Bihar Sporting Novak - Koskor eta Garajes Garcia.com - Durango partiduak jokatu dira 09.00etan, Esmorga - Fontaneria Mujika 10.30etan eta Caserio Slow XOK - Azkena Kalton 12.00etan. Etzi EzDok Deika - Iruki Sagardotegia jokatu da 09.00etan, Oishi Tankemans - Alkideba 10.30etan eta Bar Txoko - Bar Areto 12.00etan.



KirolJokoa jarraitzen du torneo babesten. ARTXIBOA



Eneko Boveda eta Manu del Moral, Poliklinikako Oin Unitatean.

Eibar-Depor astelehenean

Lehen Mailako hirugarren jardunaldian, azkar beraz, hasiko da Eibar FT astelehenean jokatzeko. A Coruña Deportivo hartuko dute Garrantzen mutilek Ipuruan, 20.45etan, jardunaldiko azken partiduan. Iaz talde biak maila bat beherago zeuden eta biak igo dira: Ipuruan jokatuako partiduan eibartarrak nagusitu ziren 2-1, gero Riazorren partidu handia egin eta bana berdintzeko. Sarrerak geratzen badira, partiduaren egunean zabalduko dira txarteldegiak (10.00-14.00 eta 16.00tik aurrera). Hurrengo jardunaldian eibartarrek Elx-en zelaia bisitatu dute.

Omenaldia "jubilatuz" berri den Fernando Azkoagari

Fernando Azkoagak bere taldekide eta hainbat lagunengatik omenaldia jaso zuen zapatuan. Urte askoan jokalaria, entrenatzaile eta laguntzaile izandakoak aurtun laga du foballa, eta Mujika Iturgintzako bere taldekideek eta hainbeste urtetan egindako beste hamaika lagunek foball partidu eta bazkari batekin egin zioten omenaldia.



Azkoaga oraingoan ere foballari jantzi eta borrokarako prest agertu zen.



Astigarraga onena izan zen Arrateko bolatokian

Astlehenean, Asola-Berri bolatokikoez antolatuta, jokatutako Arrateko Amaren Hiru Txirilo Bola Txapelketan, Bittor Astigarraga nagusitu zen, 5 txirlorekin. Irabazleak Jorge Arregiri hartu zion aurrea: azken horrek lau txirilo etzan zituen. Eta atzetik sailkatu ziren Arkaitz Rodriguez, Bittor Ugarteburu eta Mikel Urkia, hiruna txirlorekin.



Bi eibartar Mendatako podiumean

Eibarko Kalamua Korrikalari Taldeko lau partaide izan ziren Mendatan antolatutako X. Mendi Maratoian parte hartzen eta horietako bik (Juanra Rodriguezek eta Aitzol Jimenezek) podiumera igotzea lortu zuten, 2. eta 3. postuetan sailkatuta. Postu batzuk atzerago, 25. eta 26.ean amaitu zuten Natxo Garayk eta Santiago Santamariak.





Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

2014/15 EUSKARA IKASTAROAK

matrikula zabalik

aek

EUSKALDUNTZE OROKORRA
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(AURREZ AURREKOA)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- 3. eta 4. mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

eibar@aek.org

Udalaren laguntzaz
BEKA SISTEMA

Sostoa 1, 1. solairua Tfnoa: 943 201 379



GORKA TAGLE (Kantabria Etxea) "Abesbatzako kideak Lambrettan jaitsiko dira bihar"

Bihartik aurrera Kantabriako Etxekoek Bien Aparecida amabirjinaren jaiak ospatuko dituzte eta, urteroko moduan, Kantabria aldeko musika eta bestelakoekin gozatzeko aukera egongo da herritik irtetzeko premia izan barik. Horiek antolatzen jardun duen lantaldeko kidea den Gorka Taglek kontatu dizkigu jaiaren nondik norakoak.

- Zer prestatu duzue aurtengo jaietarako?

Bihar arratsaldetik ekingo diogu egitarauari, 19.00etan Ipu-ruako bolatokian "Ronda El Midaiaju" Reinosako taldearekin. Campoo-Los Valles eskualdean oso zabaldua dago horrelako abesbatzen inguruko ohitura: ezkondu aurretik senargaiak neskalagunari horrelako erronda abesbatzak bidaltzen dizkio eta, bestela ere, bertakoen artean oso harrera ona duten taldeak dira. Musika herrikoia, tradizionala eskaintzen duen taldea da eta oso pozik daude etxetik kanpora abesteko aukera izateagatik.

- Herri-musika aipatuta, zu zalea zara?

Hor ibiltzen gara neskalaguna, koinatua eta hirurok musika egiten. Kornyu izeneko taldea daukagu, nahiko bitxia, gainera, hirukotean euskaldun bat, argentinar bat eta Sevil-lako bat gaudelako.

- Emanaldia Ipuruan hasiko da, baina gero kalejiran ibiliko dira, ezta?

Bai, bolatokian hasi eta Toribio Etxebarria eta ingurura jaitsiko dira ondoren. Jaiak antolatzeko orduan beti ahalegintzen gara herrian bertan dauden taldeekin-eta elkarlanean zerbait egiten, horrela Kantabria aldeko ohiturak eta musikak hemengoekin uztartu eta ekitaldiak moduren batean aberasteko. Biharko, adibidez, Kaleetan Kantuz abesbatza-ren eta Lambretta Klubaren laguntasuna izango dugu eta abesbatzako kideak, euren jantzi eta bestelakoak soinean dituztela, Ipuuatik motorrean jaitsiko dituzte. Iluntzerako txorizo-jana prestatu dugu Jardinetako egoitzan.

- Baina jaiak bihar ere jarraituko du...

Domekarako meza, piskolabisa eta bazkaria antolatuta ditugu eta hurrengo asteburuan, berriz, zapatu eta domekan mahai-jokoak eta beste txapelketak jokatu dira. Iaz izan zuen harrera ona ikusita, bestalde, rabelista bat etorriko zaigu aurten ere.

- Bestela, urtean zelako martxa daukazue elkartean?

Gaur egun 150 bat bazkide gara eta jaietatik kanpora ekitaldi apalak antolatzen ditugu. Urtero irteeraren bat, Eibar eta Ermua arteko bolo-palma txapelketa... horrelakoak egiten ditugu.



Gaztelekua martxa betean

Atzotik Indianokua gaztelekua zabalik dago, martxa betean: eguenetan 18.00etatik 20.00etara, barixakuetan 16.30etatik 21.00etara, zapatuetan 17.00etatik 21.00etara eta domeketan 17.00etatik 20.30etara. Asteburu honetan, gaur eta bihar Disparate Eguna egingo dute (bihar, gainera, Play eta Wii Dance ere egingo dituzte) eta domekarako Gazteleku ondoan egiteko jolasak prestatu dituzte.



Kultuko bazkideen erakusketa

Arrate Kultur Elkarteak ikasturteari ekiteko elkarteko bazkideen lanekin erakusketa antolatu nahi du Topalekuan. Erakusketa horretan parte hartu nahi dutenentzat lanak entregatzeko epea luzatu dute eta, beraz, interesa dutenek datorren astean zehar bulegora eramateko aukera izango dute. Arrate Kultur Elkarteko arduradunek bazkideak parte hartzera animatu nahi dituzte. Erakusketa datorren asteko barixakuan, irailaren 19an zabalduko dute.



Argazkigintza ikastaroa

Baliabide informatikoak erabilia argazkigintza digitala ezagutu eta oinarriko kontzeptu eta teknikak ikasi nahi dituztenentzat ikastaroa antolatu dute. Hamasei urtetik gorako edozeinek izango du Jose Valderrey argazkilarik emango dituen klaseetan parte hartzeko izena emateko aukera. Klaseak urriaren 20tik azaroaren 26ra bitartean izango dira, Portaleko argazkilaritza tailerrean, astelehen eta eguaztenetan 19.00etatik 21.30etara. Eibarren errolatutakoentzat ikastaroak 47 euro balio du (79 euro besteentzat). Izena emateko eta informazioa eskatzeko Pegorara jo daiteke, irailaren 15etik 26ra.

Rosa Cedron zuzenean

Coliseo antzokian kontzertua emango du Rosa Cedron abeslariak irailaren 19an, 20.30-etan. Galiziako abeslariak aurretik ere jardun du gurean, azkenengoz 2011ko irailean. Datorren asteko kontzertuan kanta berri asko eskainiko dituela aurreratu digute. Gainera, oraingoan berritasun garrantzitsuarekin etorriko zaigu: "Eibarren emandako kontzertuan egon zen norbaiti omenaldia egin nahi dio, kantu bat euskaraz abestuta. Izan ere, omen du nahi duen pertsona oso euskaldun eta euskaltzalea zen eta Rosaren musika asko gustatzen zitzaion. Hain zuzen ere, kontzertuan egon eta hiru egunetara hil egin zen eta euskaraz abestia eskaini nahi dio oraingoan". Bestela, kantariak bere estiloari eutsiko dio: zeltiar jatorriko abestiak, erritmo bizikoak



eskainiko ditu ahotsari txeloarekin lagunduta. Berarekin batera Alejandro Barbosa (gitarra) eta Javier Cedron (biolina) arituko dira. Sarrerak 10 eurotan salgai daude, Kutxabanken eta Coliseoko leihatilan.

laburrak

KZGUNEAK

Portalean dagoen KzGuneak, hileroko ikastaro eskaintzaren barruan, honako hauek emango ditu: Google Maps (irailaren 18an, 11.00etatik 13.00era), Irudia eta Soinua (irailaren 22an, 11.00etatik 13.00era), Tablet (irailaren 29an, 11.00etatik 13.00era) eta PayPal (irailaren 30ean, 16.00etatik 18.00etara).



ANTZERKIA

Txalo antzerki taldeak "Ondoko hilibiko tipo hau" euskarazko antzezlan taularatuko du irailaren 26an, 20.30etan Coliseoan (8 euro). Begoña Bilbaok zuzenduta, Aitziber Garmendia eta Iker Galartza izango dira protagonista.



DJ saioa Belekon

Kurtso berriari ekiteko DJ saioa antolatu dute Beleko tabernan: bihar arratsaldean, 19.30etatik aurrera Gorku eta Fari egongo dira tabernan musika "pintxatzen". Antolatzaileek aurreratu digutenez, "hasieran, arratsaldeko poteoa musika lasaiarekin giroten ibiliko dira, poliki-poliki, denborak aurrera egin ahala erritmo dantzagarriagoak jartzen joateko".

Aire berriak!
Estaziño, 4
943 254776
Rhòl Estilistak

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu
...eta kitto! ditzkarian duzu aukera (943 20 67 76)

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 ☎ FAX: 943 12 02 04
CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- 1) Kardiologia; 2) Zirurgia; 3) Dermatologia;
- 4) Dietetika eta Nutrizioa; 5) Análisi Klinikoak;
- 6) Ortodontzia; 7) Otorrinolaringologia;
- 8) Pediatria; 9) Psikiatria; 10) Neurologia;
- 11) Barne Medikuntza; 12) Radiologia;
- 13) Urologia; 14) Traumatologia;
- 15) Koloproktologia; 16) Erizaintza;
- 17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa;
- 18) Foto-depilazio Unitatea; 19) Ginekologia;
- 20) Lagundutako ugalketa (**BERRIA**)

Gurasoendako euskara klaseak erdi prezioan

Euskara ikasi nahi duten gurasoentzat eskaintza bereziak prestatu dituzte Udal Euskaltegiak eta AEK-k. Aurreko barixakuan prentsaurrekoan azaldu zituzten eskaintza bereziaren nondik norakoak Esther Kareaga Euskara-Kultura zinegotziak, Junkal Txurruka teknikariak eta euskaltegi bietako zuzendariak, Idoia Argoitiak (Udal Euskaltegia) eta Xabi Zubizarretak (AEK). Azaldukoari jarraituta, "euskaltegi bietan euskara ikasteko tarifa berezia izango dute 0-12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoek, iazko moduan matrikulan %50eko deskontua egingo zaie". Beharpena, gainera, ikasturte hasieran, matrikula betetzeko orduan zuzenean aplikatuko da, gurasoak horrela errazago animatuko direla pentsatzen dute-eta. Izan ere, iaz lehenengoz martxan ipinitako eki-

menak oso harrera ona izan zuten: "50 guraso ibili dira euskara ikasten. Komunikatzeko gaitasuna lortzearekin batera, seme-alabei eskolako lanetan lagundu ahal izatea, eskolako libururak ulertu ahal izatea... horrelakoen bila etortzen dira. Eta behin hasita, asko, perfilen bat eskuratzeko edo, gehiago ikastera animatzen dira". Klaseak emateko ordutegiak ere ahalik eta erosoan izaten ahalegintzen dira (umeak eskolan dauden bitartean, astelehenetik eguenera).

Gurasoentzat ez ezik, beste kolektibo batzuentzat (langabetuentzat, merkatari,

ostalari eta zerbitzu enpresetakoentzat, euskara plana duten enpresetakoentzat, jubilatuentzat...) ere eskaintza eta tarifa bereziak daude.



Xabi Zubizarreta, Esther Kareaga, Junkal Txurruka eta Idoia Argoitia gaur zortziko aurkezpenean. SILBIA HERNANDEZ



Badator Euskaraz Bizi Nahi Dut azoka!

Gure herrian euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko Euskaraz Bizi Nahi Dut azoka egingo da Untzagan irailaren 20an, 11.00etan hasi eta 14.30ak bitartean. Aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, azokan "Eibarren euskara ikastea, praktikatzea eta euskaraz bizitzea eta gozatzea errazten eta laguntzen duten egitasmoak plazaratuko direla" aurreratu dute antolatzaileek. Ekintza nagusia azoka bera izango bada ere, aurtan berrikuntza garrantzitsua gehitu diote egitarauari: "Azokaren aitzakiarekin, 13.00ean flashmob-a egingo da Esne Bel-

tzaren 'Euskaraz Bizi Nahi dut' abestiarekin eta jendea pausok ikasi eta parte hartzera animatu nahi dugu". Horretarako, Youtubera (<https://www.youtube.com/watch?v=97GFSRDEZY0> helbidera) "Euskaraz bizi nahi dut pausok" izenburukoia igo dute. Horrekin batera, gaueko bertso musikatuaren saioa prestatu dute Hankamotxak bertso eskolakoek. Bestalde, nahi duenak Euskaraz Bizi Nahi Dut kamiseta erosteko aukera izango du, Klub Deportiboan (irailaren 15ean, 17an eta 18an, 19.00etatik 20.30etara) eta eguenean bertan Untzagan.

Ez Dok Jam Session bueltan

Aurreko asteaz geroztik, Ez Dok tabernak zuzeneko emanaldien programazioari ekin dio eta gaur bertan, 23.00etatik aurrera Jam Session direlakoen denboraldia estreinatuko dute. Bihar, berriz, 23.30etatik aurrera Katxarrismos musikari bizkaitarrak kontzertua emango du, berak olio-kutxa eta bestelakoak erabilia sortutako instrumentuekin. Eta eguaztenterako (20.00etan) garagardoari eskainitako ekitaldi berezia prestatu dute: Brewdog Experience izenburuari jarraituta, nahi duenak Eskoziako marka ezaguneko hainbat garagardo dastatzeko aukera izango du, bakoitzaren inguruko azalpenak emango dituen adituak esandakoa entzuten duen bitartean. Edariari laguntzeko mokaduak emango dituzte. Saioan parte hartu nahi duenak 15 euro or-

daindu beharko ditu. Informazio gehiagorako edo izena emateko zuzenean tabernara jo dezake edo, bestela, gimare81@gmail.com helbidera idatzi.



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, LOREA, gure etxeko printzesak domekan bi urte beteko ditto-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, NAIARA!, abuztuaren 16xan 10 urte egin zenduazena-eta. Etxekuen eta, batez be, Karenen partez.



Zorionak, AIUR, gaur bi urte egiten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez. Rock On!



Zorionak, TELMO, maitxi, zure seigarren urtebetetzian. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, GARAZI, abuztuaren 18xan sei urte bete zenduazena-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARTA, zure 8. urtebetetzian! 8 musu potolo famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, gaur bi urte betetzen dozuz-eta. Laztan potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, ALAITZ, martitzenian zazpi urte bete zenduazena-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, NAIZAN, abuztuaren 12xan urtetxua egin zenduazena-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, aitxitxamamen partez.



Zorionak, ANER Amuategi, domekan 8 urte bete zenduazena-eta. Muxu haundi-haundi bat June eta famelixaren partez.



Zorionak, amama MARI CRUZ eta MAIER, domekan urtiak beteko dozuez-eta. Millioi bat muxu zuen famelixaren partez!



Zorionak, NAIA, hillaren 2xan lau urte bete zenduazelako. Patxo bat Eibarko famelixaren eta, batez be, Uxue eta Xabierren partez.



Ongi etorri, KEPa! Laztan haundi bat zure lehengusu-lehengusiñ Uxue eta Xabierren partez.



Zorionak, JUNE, uztailaren 24an bi urtetxo bete zenduazena-eta. Patxo bat Eibarko famelixaren, eta Uxue eta Xabierren partez.



Zorionak, UXUE, juan zan zapatuan bost urte egin zenduazelako. Patxo potolua famelixaren partez.



Zorionak, IKER, gaur bi urte betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IKER, gaur bi urte betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Neska haundixak egin zarie, INTZA eta MALEN! Datorren astian batek 7 eta bestiak 9 urte! Patxo haundi bat etxeko danon partez.

hildakoak

- Antonio Millan Mateo. 2014-VIII-20.
- M^a Paz Urzelai Herrera. 93 urte. 2014-IX-4.
- Jose Antonio Arosa Iriondo. 76 urte. 2014-IX-6.
- Isabel Salas Lizaur. 85 urte. 2014-IX-7.
- Felisa Legarra Garetxana. 93 urte. 2014-IX-8.
- Vega Pita Santos. 83 urte. 2014-IX-9.

jaiotakoak

- Iraide Gallego Martin. 2014-VIII-30.
- Nora Jainaga Gomez. 2014-IX-2.
- Peio Roitegi Garcia. 2014-IX-5.
- Sara El Aarrass L'Arrass. 2014-IX-7.

BARIXAKUA 12

GAZTELEKUA

16.30/. Disparate Eguna. Indianokua gaztelekuan.

ZAPATUA 13

BARRENAKO JAIK

12.30. Paella lehiaketaren hasiera.

14.00. Paellak epai-mahaikoei aurkeztea.

14.30. Sari banaketa eta herri bazkaria.

16.30. Umeendako jolasak.

17.00. Mus txapelketa azkarra (Gure Kaiola eta Bodega Vinagren).

19.00. Patata tortila txapelketa.

20.00. Epai-mahaikoei tortilak aurkeztea afari merienda. Barrena kalean (gasolindegi pareko parkean).



GAZTELEKUA

17.00. Disparate Eguna, Play eta Wii Dance. Indianokua gaztelekuan.

BIEN APARECIDA JAIK

19.00. "Ronda El Midaiaju" Reinosako taldearen emanaldia Ipuruako bolatokian eta kalejira, Lambretta Klubak eta Kaleetan Kantuz abesbatzak lagunduta.

21.30. Txorizo-jana, Kantabriako Etxearen Jardiñetako egoitzan.

DJ SAIOA

19.30. Gorku eta Fari. Beleko tabernan.

KONTZERTUA

23.30. Katxarrismos. Sarrera doan. Ez Dok tabernan.



DOMEKA 14

KOFRADIA ETA BASERRITAR JUBILATUEN EGUNA

10.30. Simon Aldazabal XIX. Antxitxiketaldia. Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeko bidetik).

11.00. Meza Nagusia, bertsolariekin eta Arrateko ezpata-dantzarekin. Ondoren, prozesioa, Usartza Txistulari taldeak lagunduta.

12.00. Paella lehiaketa.

14.00. Paella lehiaketaren sari banaketa.

14.30. Jubilatuentzako bazkaria, Kantabria Jatetxean. Baserritar nagusiei opariak banatuko zaizkie. Trikitilari eta bertsolariak.

17.30. Idi-probak. Arraten.

BIEN APARECIDA JAIK

12.00. Meza San Andres elizan.

13.00. Bazkide eta lagunendako piskolabisa Kantabriako Etxearen Jardiñetako egoitzan.

15.00. Bazkaria.

GAZTELEKUA

17.00. Kanpo-jolasak. Indianokua gaztelekuan (kanpoan).

EGUAZTENA 17

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

GARAGARDO-DASTAKETA

20.00. Brewdog garagardoaren aurkezpen eta dastaketa. Ez Dok tabernan.

EGUENA 18

ELKARRETARATZEA

18.30. Eskoziako erreferendumari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea, Eibarko EH Bilduk deituta. Untzagan.



HOROSKOPOA

ARIES

Beti geratzen zaizu sentsazio berdina: uda ez duzula behar bezain beste aprobetxatu. Benetan? Pentsa ondo egin dituzunak!

TAURUS

Indarberituta ekingo diozu denboraldi berriari. Ea asmo guztiak betetzen dituzun eta dena ongi iriteten zaizun. Merez duzu!

GEMINI

Ez duzu uste nahikoa dela? Lagunak kokoteraino daude udako zure pasadizoak entzuten! Argazkiak ez erakutsi, arren!

CANCER

Kostako zaizu berriz hemengo bizimodura egokitzea, baina ez larritu: egun edo aste batzuetako kontua izango da, besterik ez.

LEO

Zeinen azkar pasatzen den abuztua, ezta? Hori ondo aprobetxatu duzulako da. Orain txipa aldatu eta ekin sasoi berriari, animo!

VIRGO

Aldatuta etorri zara udako oporretatik. Zer gertatu zaizu, bada? Nor ezagutu duzu? Beste poztasun batekin zabilta.

LIBRA

Tira, anima zaitez! Egunerokotasunean murgiltzeagatik berriro ere ez da mundua amaitzen. Baditu bere alde onak, ziur!

SCORPIUS

Nolako hilabetea pasa duzun! Emozioz betea, abenturaz josia eta alaitasunez blai. Orain dena kontatu beharko, ezta?

SAGITTARIUS

Behar zenuen horrelako uda pasatzea. Berriz ere alai sentiitzen zara, bizi-bizi, eta horrek asko lagunduko zaitu gerora.

CAPRICORNIUS


Arazo guztiak atzean laga dituzu eta une zoragarriak biziko dituzu hemendik aurrera. Terapia izango da zuretzat.

AQUARIUS

Uda zoragarria izan da... eta itzulera? Patrikan eskua sartu eta hutsik. Diru gehiegi xahutu al duzu? Hori dirudi, ezta?

PISCIS

Denak oporretan joan aurretik bezala jarraitzen du. Berdin-berdin. Aldatu den bakarra zure burua izan da: hor arazoa!



erakusketak

✓ Irailean

JOSU GARAIEN argazki erakusketa.
Klub Deportiboan

PEDRO ARRIOLARENN "Uzbekistan"
argazki erakusketa.
Portalea tabernan.

ENRIQUE LORENZOREN argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan

lehiaketak

✓ XV. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia

Lanak aurkeztea: Portalean, **urriaren 3ra arte**. Informazioa: www.planocorto.es/
www.eibar.net; cultura@eibar.net; 943708435 telefonoan.

✓ XXVII. I. Ojanguren Argazki Lahiaketa

Lanak aurkeztea: Portalean, **urriaren 3ra arte**. Informazioa: Portalean.

✓ Sanandresak Eibarren kartel lehiaketa

Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urriaren 14ra arte**, Pegoran.

Ikastaroak

✓ UEUko ikastaroak

Eskaerak eta informazioa: www.eibar.net helbidean eta Pegoran.

diru-laguntzak

✓ Dirulaguntzak ikasleei / Umeak Eskolara

Zenbatekoa: 60'10 euro. **Eskaerak aurkeztea:** Eibar Merkataritza Gune Irekian (Untzaga Plaza, 7- 3. behean), urriaren 31ra arte. **Informazio gehiago:** Pegoran.

		4		5		9		
	8		4	1				
	9							7
		6					8	
	3		8		2		6	
	2					4		
6							2	
				7	4		9	
		5		9		8		

SUDOKUA

2	1	4	7	3	6	5	9	8
6	5	8	2	9	1	7	3	4
9	7	3	8	4	5	2	1	6
1	4	5	9	8	7	3	6	2
3	8	6	4	5	2	1	7	9
7	9	2	1	6	3	4	8	5
8	6	1	5	7	4	9	2	3
5	3	7	6	2	9	8	4	1
4	2	9	3	1	8	6	5	7

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. 2 logela eta egongelarekin. Tel. 602-490595.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-450 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 632-569245. Waris.
- Gizonezkoak pisua hartuko luke alokairuan. Konpartitzeko. Tel. 660-833346. Fernando.
- Logelak alokagai T. Etxebarria kalean. Tel. 631-325616. Andrea.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 632-192408.
- Lagun bakarrik pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 656-758793.
- Pisua alokatzen da Eibarko Arane kaleko Jatako eraikinean. Logela bakarrekoa. Altzairu berriak eta diseinuazkoak. 500 euro. Tel. 645-735442.
- Gizonezkoak etxe txikia hartuko luke alokairuan. Tel. 603-225505.
- Pisua alokatzen da Donostiako Gros auzoan. Ikasleentzako egokia, unibertsitateko eskolak irauten duten saioan. 3 logelakoa. Tel. 639-775253. Juan Andres.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-500 euro ordaintzeko prest. Tel. 632-506970 eta 632-337083.
- Pisua alokagai Jardinieta kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 690-018786.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- 70 m²ko lokala alokatzen dut Eibarren. Barra, zerbitzua eta abarrekin. Gazteentzako baimenarekin. Tel. 679-425467.
- 25 m²ko lokala hartuko nuke errentan. Merke, ahal bada. Tel. 618-854121.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 602-057896.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-040297.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 633-808931.
- Mutila eskaintzen da pintore jarduteko eta etxeetako edozein motako erreformak egiteko. Tel. 632-569245 eta 673-271449. Waris.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 602-186462.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 688-901667 eta 943-530908.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Baita orduka eta asteburuetan ere. Tel. 638-338816.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 696-802587.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 632-370798.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko. Tel. 636-841158.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta tailerlean lan egiteko. Tel. 664-622504.
- Emakumea eskaintzen da gauzez zein orduka umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-253170.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-362251.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka zein gauzez. Tel. 654-891077.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 688-297160.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 633-244397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (esperientzia) eta garbiketarako egiteko. Tel. 642-609678.
- Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 652-532589.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 630-531469.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-180233.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 674-342769.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 609-333892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-626975.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 603-243564.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 608-147559.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 686-265293.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-684920.
- Irakasle ikasketak (LHrako) amaituta dituen mutil euskalduna eta arduratsua eskaintzen da haurrak eskolara eramateko. Tel. 634-430647.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernan jarduteko. Esperientzia. Tel. 600-610630.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 645-194423 eta 943-176002.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, sodedadeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 628-872295.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 672-867999.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-123667.
- Neska arduratsua eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-110716.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Orduka, gauzez edo interna. Tel. 672-867999.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. Tel. 631-385949.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 679-946934.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Abuztuan ere bai. Tel. 606-906729.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-147559.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-192408.
- Mutila eskaintzen da lan egiteko: igeltseritza, konponketak... Tel. 673-271449 eta 632-569245.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-408528.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 682-277198.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. Bidali kurrikuluma: davidtubolab@gmail.com
- Kamarerak/roak behar dira Eibarko jatetxe batean. Tel. 667-908392. Alai.
- Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 679-918437.
- Kamarera/o behar da asteburu eta gauetarako. tre@euskalnet.net
- Kamarera/o behar da Soraluzeko jaientarako. 943-750030 eta 670-541347. Oscar.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaerak

- Ingeniaritza Mekanikoko 2. mailako ikasleak klase partikularrik behar ditu, Mekanika eta Elektronika ikasgaietarako. Premia handia. Tel. 653-748088.
- Irakaslea behar da 2. Batxilergoko Matematikak eta Ekonomia klaseak emateko. Tel. 652-700114.
- Ingeleseko irakasle partikularra behar da, Batxilergo mailakoa. Tel. 652-700114.

5.2. Eskaintzak

- LHko ikasketak amaituta dituen mutil euskalduna eta arduratsua eskaintzen da LHko umei klase partikularrik emateko. Tel. 634-430647.
- Neska eskaintzen da klase partikularrik emateko (arreta arazoak, ikasketako zailtasunak). Esperientzia. Ekonomikoa. Tel. 625-019711.
- Alemanierazko klase partikularrik ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen trukaketa eta EO-rako azterketen prestaketa. Tel. 670-793312.
- Ingeniari industrialak klase partikularrik ematen ditu. DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta Unibertsitatea. Talde murriztuak. Tel. 669-622642. Mireia.
- LH eta DBHko klaseak ematen dira. Ikasgai guztiak. Klaseak bakarka egiteko aukera. Tel. 652-757926.
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Maila guztiak. Irakasle natiboa. Tel. 652-763264.
- Haur Hezkuntzan eta Atzerriko Hizkuntzan espezializatutako irakasleak klase partikularrik ematen ditu. 1. Hezkuntzako umeentzat Isasi kalean. Tel. 663-006640. Ane.
- Ingeniari industrialak (tituloduna) klase partikularrik ematen ditu. Tel. 695-756447.
- Ingeniaritza tituludun neska eskaintzen da klase partikularrik emateko. Tel. 670-251265.
- Fisika eta Matematikako klase partikularrik ematen ditut. Gehienez 4 laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Umeendako karro-silla salgai. 90 euro. Tel. 632-569245. Waris.



UGAN KLUB

F. Calbetón, 21 EIBAR

943 82 04 52

www.uganklub.net

uganklub@gmail.com



Instalazioak nahi duzunean eta nahi bezain beste erabiltzeko aukera



FISIOTERAPIA ZERBITZUA



FITNESS, SPINNING, AEROBIC, AQUATONIC, PILATES, BOSU, ZUNBA, KICKBOXING, TAEKWONDO-TXIKI, CROSSFIT, HIPOPRESIBOAK ...

IGERILEKUA ETA SAUNA BARNE

dena 65 €

UR JARDUERAK

4 hilabetetik

6 urte bitartekoentzat

igeriketa

(ur tenperatura

22,8°C)

50 €
hilero



"Kirola eta Osasuna zure Gustora"

"PERSONAL TRAINER" ZERBITZUA